

Denboraren makina
Bergaran wolframioa
isolatu zutenekoa

▣ *Ezpalak*
▣ *Argitalpenak*

▣ *Denbora-pasak*
▣ *Makina bat kontu*

Ihesi
Maldan gora
Gasteiz, maldan
behera Vitoria.

ARGIA

erdiko kaiera

kultura eta aisia

Antzararen bidean Tiro hots ozenak

Jokin Muñoz

Castejon (Nafarroa), 1963. Etxaurin bizi da eta Barañain-en egiten du lan. Irakaslea da. Duela hamabost urte afizio asko zeuzkan: kirola, zinema... Irakurtzea eta idaztea ere bai. Aita izan eta denbora urritu zitzaion, lau seme-alaben guraso izaki. Orduan hasi zen serio idazten, baita idazle bilakatu ere. Horra paradoxa! Ordenagailu eramangarria alboan duela, idazle frankotiratzaile gisa aritzen da: non izan han idatzi. *Antzararen bidea* (Alberdania) nobelan bildu ditu bere azken tiroak. Tiro hots durunditsuak entzun ditugu engoitik.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Josu Santesteban



«Traumaren literatura dei daiteke nirea»

BIZIA LO kontakizun-bildumak euskal gatazkaren hitsa itsatsi zigun: narratzailearen begirada grisa. Egileak Euskadi Saria jaso zuen ordainean, baita Castejongo Udalaren errekonozimendua ere: “Detaileak harritu ninduen. Euskararen mugatik, gure *ghettotik*, ateratze horrek poztu ninduen”, diosku Jokin Muñozek.

Antzararen bidea eleberria mugarri izan daiteke literato honen ibilbidean, *Bizja lo* baino koloretsuagoa izaki. Bere hitzetan, euskal literaturaren egileek euskal gatazkaren zergatia kontatu zuten bere hastapenean (Saizarbitorriaren *100 metro*, kasu); gaia oinarri eta abiapuntu izan zuten. Egun, aldiz, literatura mota hau gatazkak sortu duen soziologia azaltzeko xedez egiten da: “Hogei urte barru berriz, bizi dugun egoera soziopolitikoaren esperpentikoa irudituko zaio jendeari. Honen ondoriozko literatura idatziko da”.

Jokin Muñozek mundu bat amaitzen ari zaio, mundu ikuskera bat agortzen ari delako: “Euskalduntasuna, euskaldunaren kontzeptu politikoa aldatzen ari da eta euskal kultur munduak zaharberritzea behar du”. Kon-

tzientea da horrek guztiak bere literatura lanean eraginen duela. Alta, bere aburuz, gaiak ez dira agortzen, berauek tratatzeko moduak eta begiradak baizik.

Bere literaturaren bidean sartu gara. Gatazka konpontze bidean, ezker abertzalearen autokritika moduko bat itxaroten duela diosku, mundu horren baitan zerbait aldatzea.

Goazen *Antzararen bidean*.

Antzararen bidea izeneko metafora gure iraganeko herrietan ezagutu genuen. Oilo edo antzara bati burua moztu ohi zioten eta, bururik gabe, tipi-tapa, bidea nola egiten zuen guztion ikusmira zen. Indar handiko metafora iruditu zitzaidan.

Baita krudela ere.

Bai. Metafora bururik gabe dabilzan pertsona da. Behin burua moztuta, gogoa iraganean duten pertsonen orainean kokatzeko sekulako zailtasunak dituzte, naufragoak dira, noraezean dabilza. Nobelako pertsonaiak holakoak dira, bururik gabekoak.

Bururik gabe, baina beste batzuek gidatzen dute euren burua, antza.

Hori bada irakurlearen ondorioa, ni pozik. Nobela ulertu duen seinale.

Neronek gidari horien erretraturen bat antzeman dut istorioan.

Istorio honek errealtaterekin daukan koinzidentzia oro kasualitate hutsa da.

Zu idazle errealistatzat hartzea zuzena al da?

Sortu dudana istorioa nire imaginazioaren fruitua da, imaginazioa memoriaren zerbitzura ulertuta. Imaginazioa, bizi, kontatu eta inguratzen nauen munduan zentratu dut. Gertakizunetatik elikatzea eta horrekin istorio bat sortzea errealista izatea bada, idazle errealista izan naiteke. Halere, nobela hitza eta errealismo hitza ez dakit oso uztargarriak diren.

Euskal gatazka literaturaren bidez agertzen nabarmendu zara zure azken bi lanetan.

Nik ez dut ulertzen euskal literatura, Euskal Herrian sortzen dena, ez euskarazkoa soilik, arazo horrekin topo egin gabe. Nik ezin dut fikzioa sortu bestela. Nire helburua pertsonen izaerak eta sentimenduak islatzea da, eta bizi dugun arazoak potentzialtasun izugarria ematen dit. Nire literatura gatazkaren inguruan giza kondizioa aditzera emateko da, aukera saihestezina zait nonbait.

Literatura honek ba al du izenik?

Traumaren literatura deitu daiteke.

Antzarak eta antxetak ageri dira bi istoriok osatutako nobelan, lehorra eta itsasoa.

Hamabost urte dira Nafarroan bizi naizela eta nabaritzen dut itsasoaren nostalgia. Gaztetan Urumearen ondoan bizi nintzen, eta kaiokak eta antxetak ekarri nahi nituen nobelara. Antzara berriz, euskal literaturan erabilia izan da askotan. Atxagaren *Bi anai* nobela zirraragarrian bi anaiak antzara bilakatzen dira. Oso irudi plastikoa iruditzen zait. Oiloa izan zitekeena antzara bilakatu zen, antzarak euskal literaturan duen presentziarengatik.

Erribera eta Donostiako paisaiak kontrastagarriak izaki.

Paisaia ez da doanekoa. Donostiako koloreak krepuskularra da, manifestazioetako eta paseoetako koloreak, une mugituak eta lasaiak. Ukitu dekadentea ageri da, argiaren nostalgia, argia utopia bezala hartuta. Has tapenean azaltzen diren gazteak argiaren

Literatura, begiko lurraldea

Castejonek jaio bazen ere, Donostiak eragin gehiago du bere nortasunean. Batxilergoa bertan egin zuen. Nerabezaroko bizipenen kresal usaina gorde du. Bere aitaren aita donostiarra zen eta honen ama Artaxonakoa. Ama berriz, Castejongoa, aitona bertako medikua izaki. Sei neba-arreba dira. Aitonaren arimuan Castejonek munduratu zituen lehen hiruak amak. Laugarrena eta bosgarrena Gasteizen eta azkena Donostian. Udaldietan Erriberara joaten ziren.

Nafarroan bizitzeak euskal izaera, euskalduntasuna eta euskal arazoa beste era batez ulertzen lagundu dio. Ez du sinesten Euskal

Herria politikokoan, kulturean baizik. Transbertsalitate politikokoaren aldekoa da. Euskal eta espainol nazionalismoaren arteko mugak urratzeko modu bakarra begitantzen zaio. NaBai-ren bidez lantzen ari den transbertsalitatearen eske-mak piztu dio itxaropen pizarra.

Euskal Hirian baino Euskararen Munduan ikusten du bere burua. Literatura da interesatzen zaion lurraldea, eta zehatzago esanda hizkuntza. Zaila zaio bere burua ideologikoki definitzea. Vasco eta espainola bitasun eta izaeren artean, euskaldunak ebazten du auzia. Euskalduna da bestelako ize-nondorik gabe.

atzetik dabilta, Erriberan, itsasoa amets. Trilluelosko [nobelan azaltzen den herria] galsoro izarigabeak ageri dira.

Nobela koloretsua da Antzararen bidea.

Gaia ezagututa, ezin nuen bestera idatzi. Oso kontu tragiko dramatikoak ageri dira. Ezin nuen *Bizia lo*-ren kolore grisez idatzi, pornografia emozionalean erortzeko arriskua sentitu nuen. Politikoki egoera ezkorra eta grisa bizi dugun arren, gerta daitekeen gatazkaren amaiera txarrenetarikoa izanda ere, argi eta bizipoz pixka bat eskaini behar nizkion nire buruari. Honen guztiaren atzean Joaquín Sorolla margolariaren koadroa dago, argia eta bizi-nahia islatzen dituen.

Ametsak eta utopiak agertu zaizkigu bidean.

1936an batzuek utopia zuten ikurtzat, baina utopia di-da moztu zuten besteek. Gazteak utopiarako grina behar du beti, bestela mundu jasanezinean biziko ginatke. Mundua aldatu nahia eta inkonformismoa beharrezkotzat jotzen dut, gazteen joera errebeldea errebindikatu eta islatu dut nobelan. Baina nire iritzi, iritzi politikoa, gazteen grina hori, gaizki bideratua izan da gurean. Gazteei burua berotu zaie, gazteentzako horren garrantzizkoak ez diren kontuekin.

“Hilerrira aldera jo behar duzue, esan zion gizonak erdaraz” dio narratzaileak. Erribera erdaldu-na aditzera emanez edo...

Klabe errealistetan mugitu naiz. Agertokia Euskal Herria da. Alde bat, euskalduna deitu deza-keguna, Donostia. Eta badakit bertan gaztela-

“Metafora bururik gabe dabiltazen pertsonena da. Behin burua moztuta, gogoa iraganean duten pertsonen orainean kokatzeko sekulako zailtasunak dituzte”

“Euskaraz idazten dut euskarak balio didalako”

NOBELAREN GAIA: “Antzararen bidearen gaia ez dut aukeratu kirioak euskal gatazkarekin dantzant ditudalako. Gatazka *leitmotiv*-a izan da fikziozko ematen dituen aukerengatik, kezkatzen naudenarengatik baino”.

“EZKER ABERTZALEKO IDAZLEAK”: “Bitxia da, euskal gatazkaz idazten dutenean –saiakeraz ari naiz– ‘ezker abertzaleko idazleek’ gaztelaniaz idazten dute, eta orbita horretan ez daudenek euskaraz. Esaterako: batetik, Xabier Zabaltzaren *Gu, nafarrok* eta Aingeru Epaltzaren *Bezperaren bezpera*. Bestetik Floren Aoz-en *El jarrón roto* eta Jose Mari Esparzaren *Cien razones por las que dejó de ser español*. Niri normala irudituko litzaidake horrela izatea, baldin eta abertzaletasuna bere egiten duten horiek abertzaletasunari buruzko ikasgairik emango ez balute. Nik ulertzen dut gaztelaniaz idaztea, gaztelania ere Euskal Herrikoa baita. Hori bai, idazle horiek Euskal Herriak duen espainiar izaeraren kontra espainiar hizkuntzan aho betez aritzea kontraesana iruditzen zait”.

BAZKA-N IDATZITAKOEN HARIAN: “Ezker abertzaleko jendeak’ ironiarekin duen arazoa islatu du Lander Garrok. Ez dute jolas ironikoa ulertzen,

edo ez dute ulertu nahi. Jolasa onartu eta klabe berean idatzi beharrean irakurketa oso-oso politikoa egiten dute. Ironiaren jolasa ulertzeko zailtasun ikaragarria ikusten dut. Ironia literatoaren funtsezko arma da, ironia edo umorea kasuon”.

LE TRAIN EXPRESS DURKHEIM-CASTEJON: “Ados nago Koldo Izagirrerekin. Koldori ez zaio ulertu. Xabier Silveira kontraesanean ari da gaztelaniaz idazteko motiboak aipatzean. Idazle batek esaten badu mundua gaztelaniaz bizi duelako gaztelaniaz kontatu behar duela, hori legea balitz, euskarazko fikzioaren erreferentea Gipuzkoako Goierri edo Beterri litzateke. Legea ez da hori. Euskal literaturaren aspaldiko auzia da hori, auzi literarioa, aspaldi gaingidituta dago. 2008an eztabaida horretara bueltatzea atzera egitea iruditzen zait, euskal literaturaren kaltetan. Mariasun Landaren irasun berdin. Esan dezatela beste zerbait baina ez gaztelaniaz bizi dutelako erabili dutela hizkuntza hori. Zenbaterik ez du erdaraz bizi eta euskaraz sortu? Hori nire kasua eta askoren kasua da. Nik euskaraz idazten dut euskarak balio didalako”.

niaz egiten dela, batez ere gaztelaniaz. Lisa eta Gigi pertsonaiek euskaraz egitea normala iruditu zitzaizkidan halere. Erriberara jaitsi eta bertakoak erdaraz ari direla esatea ere egokia iruditu zitzaizgun. Ez da bat-batean erabakitzen den gauza. Editorearekin batera erabaki genuen, liburuaren azken ukituak ematean.

Nola moldatu zara nobela eraikitzeko?

Liburu arina idatzi nahi nuen, nahiz eta “arina” hitz irristakorra den. Harrapatzen duen liburua, alegia. Irakurlearengan pentsatzen idatzi nuen, intriga puntu bat eman nahi nion nobelari eta aldi berean planteamendu moralak ere eman, irakurleari zer pentsa emateko. Bukatu eta ezaxolati uzten zaituen liburua ez zait gustatzen, arrasto bat utzi nahi nion irakurleari.

Hasieran buruan zenuen asmoa al da nobela?

Nobelak bere faseak izan zituen. Oso modu kaotikoan hasi nintzen istorioa kontatzen. Gramatika eta joskera, demagun, kontuan hartu gabe. Hura duela bospasei urte egin nuen. *Bizja lo* tartekatu zen eta *saraan* utzi nuen. Erredakzio kaotiko hori egindakoa, benetako idazle lanetan hasi nintzen. Lan gehiena pertsonaiek ondo taxutzeak eman dit, istorioa ondo antolatzeak.

Pertsonaiek muturrekoak dira. Lisa, hasteko...

Irakurlea hunkitu edo aztoratu nahi baduzu pertsonaiek ezin dira planoak izan. Muturrekoak dira bai, ertz askotakoak eta Lisa halakoa da. Ez da guztiz asmatutako pertsonaia. Nire



adinekoa da. Pertsonaiaren belaunaldia galdua da: 40 urtetik 50era bitartekoa. 80ko hamarkada oso gogorra eta zaila izan zen, droga gogorra tarteko. Pertsonaia –eta adin hori dugunok– hamarkada horren ondorioak dira. Noraezean ibili zen kolektiboa da. Lisa halakoa da eta bere semea Igor da [ETako militantea].

Gigi, berriz?

Gigi ironiaren eta sarkasmoaren isla da. Gigiren ahotsa *Atlantidara bizjia* liburuan erabili nuen. Gigi ez balego nobelaren karga dramatikoak jasan-gaitza litzateke.

Demetrio orain.

Bere garaiko gizona. 1936an gertatutako izugarrikerien atzean ez zeuden politika kontuak soilik. Gorrotoa kontu pertsonala zen, bazegoen etsaiari min egin nahia. Nafarroan 3.000 hildako izan ziren baina denak ez ziren kolore politiko soilengatik hilak izan, kontu pertsonalak izan ziren, aihur eta maitasun kontuak, gizakion gauza primarioak tarteko.

Jesus, azkenik.

Nobelaren abiapuntuetako bat izan zen. Hau da, Gerra Zibila bizi zutenek, egun 80-90 urte dutenek, bizitza osoan izan duten ibilbidea agertzea. “Zer dago hauen atzean?” esaten nion nire buruari. Pertsonaia asmatu eta gorpuztu nuen, baina irakurleari ziria sartu nahian, engainatu nahian. Pertsonaiek irudi bat ematen du, baina istorioak uste ez duzun pertsona batengana eramango zaitu. 1936ko gerran, askok bizirik irauteagatik nahi ez zuten bandoan egin zuten gerra. ■

“Bukatu eta ezaxolati uzten zaituen liburua ez zait gustatzen, arrasto bat utzi nahi nion irakurleari”